

GURE HERRIKO JOXE

Ez da oso arrunta gure herriko Joxe. Hori bai hori mutil zahar itxura, beno, egia esan, ez da itxura bakarrik, bera, goitik behera eta eskuinetik ezkerrera mutil zaharra baita. Emakumeen artean ez du inoiz zorte handiegirik eduki eta honen arrazoirik nagusia bere itxuran dago; buru handi xamarra dauka (egia esan, herriko festetan buruhandiak izaten direnean, denak burua jarrita irteten dira eta bera berriz, ezer gabe, berezkoa baitu buru handia), honez gain, begi ñimiñoak ditu, sudur handia (pinotxorenaren antzerakoa), ezpain txiki eta hortz okerrak eta gainera xaguzahar baten antzeko belarriak. Gorpuzkeraz berriz, nahiko altua da, baina proportzioz hankamotz xamarra eta bere adinerako (28 urte besterik ez baititu) kupel izugarria dauka, hau da, 70 urte inguruko aiton handikote batek edukiko lukeen sabela.

Lehen esan bezala, Joxe da herriko mutil zaharrik ospetsuena eta nire senar Manuelek dioen bezala, herri honetan ez dago Joxek ustuko ez lukeen kupelik. Ezingo luke edaririk gabe bizi, berdin berdin zaio ardoa nahiz txakolina edo txanpaina nahiz patxarana. Gaztetan bere adineko jendea futbolearen jolasten zen bitartean hura dagoeneko edanean ibiltzen zen; berak dioen bezala baloiaren atzetik korrika ibiltzeak osasuna galtzeko bakarrik balio baitu.

Momentu hauetan, Andrezarreta izeneko baserrian bizi da, herritik pare bat kilometroetara. Baina horretarako ere alferra denez (oinez ibiltzeko alegia) hortxe dauka bere bizitzan eginiko inbertsiorik onena edo hobeto esanda bakarra; bere motozikleta.

Gure herria edo hobekiago esanda, herrixka, oso txikia da, bertan, denak ezagutzen gara. Herriko gizonezko gehienak (baita Joxe ere) arrantzaleak dira eta emakumeak berriz, etxean lan egiten dugu. Seme alabak, plazako eskola antzeko pisura joaten dira, bertan, Josepa maistrak ematen die klase adin ezberdinetako haur guztiei. Hona joaten dira nire seme alabak ere, Marta eta Markel.

Beno baina nik Joxeri buruz hitz egin nahi dizuet. Duela hirubat aste, izugarria gertatu zen gure herrian. Hura bai istilua eta jendetza. Dena igande goiz batean hasi zen.

Igandero bezala, Joxe "Larrena" tabernan zegoen, iganderoko "baxoerdia" hartzen. Baina egun hura ez zen besteak bezalakoa suertatu, bertan zerbitzari berri bat baitzegoen. Hark Felipe izena zuen eta ondoko herri batean bizi zen (itxuraz gixajo xamarra zirudiela esan beharra dago). Joxe beti bezala mozkor xamarra zihoan eta momentuoro emakumeen artean zeukan zorte txarraz hasi zen hizketan:

- Beti berdin! Ez dut batere ligatzen! Hau duk hau komeria....
- Baina, zer gertatzen zaik?-galdetu zion zerbitzari berriak.
- Ezin diat gehiago! Mutil zahar geratuko nauk nire bizimodu osoan!
- Hori al duk dena? Lasaitu adi gizona! Ez duk horrenbesterako!
- Nola ezetz? Hik ez dualako horrelako arazorik, bestela?
- Bestela ezer ere ez. Baina horrela jarritz gero.....
- Zer? Ba al duk konponbiderik?-galdetu zion jakin minez.
- Ba begira-hasi zen azaltzen- nire herrian bahuen hi baino desesperatuago zebilen mutil bat eta...
- Eta zer?- moztu zion gure Joxek.
- Ba lehiaketa bat antolatu zuten.
- Etzak txorakeriarik esan!- esan zuen dezepzionaturik.
- Bai gizona! Utzi hiezadak esplikatzen!
- Ongi duk, bota!
- Telebistan, egunkarian eta inguruko herrietan kartelak ipini zituzten 20-30 urte bitarteko neskak behar zirela esanez lehiaketa batetan parte hartzeko eta bertako saria herriko gizonik ospetsuenaren musua izango zela adieraziz. Honela ba, egun batzuk igaro ondoren ehundaka neska etorri ziren gure herrira eta honez gain, baita telebista eta gainerako komunikabideak ere.
- Etzekiat ba.....-erantzun zion mutilak duda aurpegia ipiniz.
- Bai gizona bai!-animatu zuen zerbitzariak.
- Beno....

Horrela ba zerbitzariak hori ospatu beharra zegoela eta beste tragoxka bat atera zion Joxeri eta honek ezetzik esan gabe edan zuen.

Handik egun batzuetara, herri osoan kartelak pegatzen hasi ziren eta honen ondorioz herrian ez zen beste ezertaz hitz egiten. Ez zegoen beste zurrumurru edo txutxumutxurik. Denek egun handia iristea nahi zuten, baita neronek ere. Nork imaginatzen zuen gure herriko Joxe neskatile bati eskutik helduta kaitik paseoa? Ezinezkoa zirudien!

Plaza erdian, Cibelesen moda emankizunetarako ipintzen ziren pasarela horietako bat jarri zuten eta beronen haseran Joxeren argazki erraldoi bat, muxu bat bidaltzen zegoela zirudien argazkia. Egia esaten badut, ez zen den bezain itxusia agertzen, ez dakit, baina nire ustez honen arrazoia makilajea zegoela. Pasarela apaintzeko alfonbra gorri bat jarri zuten eta honen gainean kolore ezberdinetako fokoak jarri zituzten. Hark Londres zirudien, geroz eta jende berri gehiago zebilen herrian eta ez neska gazteak bakarrik, baita kazetari turistak ere. Gainera gehienek ez zuten euskara menderatzen eta askotan komunikazio arazoak egoten ziren. Hasieran horren dibertigarri eta bitxia zirudien emankizunak azkenerako herri gehiena nazkatu zuen. Horrenbeste kanpotar, argazki makina eta telebistako bideoren artean denek egun handia iritsi eta hau denarekin amaitu nahi zuten.

Beni eta azkenean iritsi zen egun handia: 1999ko abuztuaren 18an geunden eta arratsaldeko 17:30ak izateko 45minutu falta ziren. Dena prest zegoen, telebista eta irratietako kazetariak aurreko hiladatan, etorritako 75 bat neskak eszenatokiaren atzekaldean, fokoak pizteko punttuan, alfonbra gorria garbi garbi eta nola ez, herriko jende guztia publikoan eserita. Hantxe geunden gu ere. Inoiz baino dotoreago jantzirik, herriko gainerako jendea bezala, denak meza nagusira joateko bezala prestatuak.

Gero eta denbora gutxiago geratzen zen, denak beren postuetan zeuden baina..... Nor falta ote? Nor iritsiko ote zen berandu mundu guztia bere zain zegoelarik? Bai, bai gure herriko Joxe. Bera bakarrik falta zen. Emanaldia hasteko 15 minutu falta ziren eta Joxe oraindik ez zen agertu.

Bat batean, ohiu batzuk entzun ziren eta han agertu zen Joxe inoiz baino dotoreago baino baita inoiz baino mozkorrago ere. Hori zen gizonaren piura, momentu batez isil isilik geratu zen plaza osoa baina laister zurrumurru handi bat hasi zen bertan. Baina orduantxe kanpai hotsak isildu zuen jende guztia, 17:30ak ziren. Bakoitza bere postuetan jarri zen, baita Joxe bera ere. Epaimahaia zen bere lekua, bertan eseri zen. Berehala aurkezle lanetan zebilen gizonak arratsaldeonak eman zituen eta emanaldiarekin hasi zen (emanaldia baino meza zirudien hark):

-Arratsaldeon! Hemen bildu gara gure herritar den Joxeri neska bilatzeko asmotan eta hemen dauzkagu eszenatokiaren atzekaldean gure neska xarmant eta lirainak.....-hark sermoia zirudien eta jende gehiena lo geratuko zela uste nuen- gure lagun Joxeren muxu eder eta zoragarria eskuratzeko asmotan lehia bizian.... eta horrela ba eta ezer gehiago esan gabe sar daitezela!!-azkenean bukatu zen sermoia eta han hasi ziren neska guztiak banan banan desfilatzen.

Joxek dena bi aldiz ikusten zuen gainean zeraman atxurraren ondorioz. Bertan denetarik ikusten zen: neska argalak, lodiak, ipurtandiak, ile horiak, beltzaranak, irrifartsuak, altuak, baxuak, begi urdinak,.... era ezberdinetara jantzirik: gona motza edo luzea, galtza bakeroak, gorriak, horiak, beltzak nahiz urdinak .

Jende guztia (ni batez ere) nazkatzen hasita geunden eta dena bukatzeko irrikitan alajaina. Neskek banan banan Joxeren galderei erantzun zien: “Uharte bakartira Joxe, Bustamanteren diskoa eta nire soineko gustokoena eramango nituzke”, bota zuen batek; “nik Joxe, Baxilio nire hartzatxoa eta Alex Ubagoren posterra”, bota zuen besteak; “nik Joxe, Olaizola eta Unax Ugalde” bota zuen azkenak (berau denetan azkarrena iruditu zitzaidan egindako aukeraketa onarengatik batik bat.) Honela ba denek bere erantzuna bota zuten.

Dagoneko arratsaldeko 20:45 ziren eta Joxe bere aukeraketa pentsatzen ari zen. Denak bere zain geunden (dagoeneko nekatu eta asperturik) eta plaza osoan zuhaitzean zeuden kukuak bakarrik entzuten ziren. Beste guztiak isil isilik geunden, nire ustez Joxe bera baino urduriago.

Azkenean irten zen pasarelarenn erdira, mikroa eskuan zuela eta galtzak ia eroririk. Honela hasi zen mintzatzen:

- leup herritarrak! Nik hartu dut erabakia! Jakin nahi al duzue?
- Baiiiiiiii!-ohiukatu genuen behingoz buka zezan.
- Ba..-esan zuen pentsakor- igo dedila 66.zenbakia! Bera baita irabazlea, denetan eder eta atseginena.

Hantxe igo zen 200kilo inguruko neska ile hori bat, saltoka eta brinkoka: "Nire lehenengo mutila! Azkenean aurkitu dut! Zu izango zara aurrenekoa eta baita azkenekoa ere. lupiiii!"hori bakarrik esaten zuen. Ondoren Joxerengana joan eta izugarrizko muxua eman zion herri osoaren aurrean.

Joxek gainean zeraman mozkorra zela eta ez zen ohartu hura zela 75 nesken artean itsusi, lodi eta berritsuena. Hura zela berak nahi ez zuen atso horietakoa. Baina dagoeneko beranduegi zen atzera egiteko. Emakume hura ezkontzarako prestatzen hastera zihoan.

Laster elkarrekin bizitzen jarri ziren Joxeren baserrian bertan eta orduztik aurrera beti mutil zahar izan zen mozkorra emakume hark zuzentzea lortu zuen lan piska bat kostatzen arren.

Honela ba gure herriko Joxe bezalako gizonen bat badago zure herrian lehiaketa ospetsua egitea aholkatuko nizuke. Honela, herria mundu osoan ezagutuko da eta gainera zure kaleetan mozkor bat gutxiago ikusiko duzu.

